



## Propositions relatives à la mise en œuvre des Volet 1 et Volet 2 de la programmation pluriannuelle de l'offre d'enseignement du basque et en basque

### Euskararen eta euskarazko irakaskuntza eskaintzaren urte anitzeko programazioaren 1. eta 2. atalen obratzeari buruzko proposamenak

#### Contexte :

L'enseignement du basque et en basque s'inscrit, avec d'autres enjeux (médias, petite enfance, usage social de la langue, sensibilisation,...), au cœur du Projet de politique linguistique adopté par le Conseil d'administration de l'OPLB en décembre 2006, car il constitue désormais le vecteur majeur de l'apprentissage de la langue basque par les jeunes générations. La prise en compte de la dimension stratégique de l'enseignement du et en basque à l'école s'appuie :

- d'une part sur la participation officielle du ministère de l'Education nationale à l'Assemblée générale de l'OPLB et à son financement ;
- et d'autre part, sur la convention ministère de l'Education nationale / Conseil général, signée le 26 novembre 2004, et renouvelée le 20 décembre 2010.

Cette dernière confie à l'Office Public de la Langue Basque une double mission :

- 1/ Organiser un dispositif de concertation permanent :
  - ↳ Visant le développement et la structuration de l'offre d'enseignement du basque et en basque dans sa double dimension quantitative et qualitative dans les 3 filières d'enseignement
  - ↳ Portant sur les politiques à engager par les partenaires publics :
    - dans les domaines de compétence de l'Etat : postes, formations des enseignants, ouvertures des classes...
    - dans les domaines de compétence des collectivités locales : locaux, personnels périscolaires...
    - dans les domaines de compétences partagées : outils pédagogiques, sensibilisation des familles, mesure de la demande, procédures d'inscription...
- 2/ Assurer la cohérence et la complémentarité des orientations prises en matière d'enseignement avec les autres thématiques de la politique linguistique.

#### Testuingurua :

Euskararen eta euskarazko irakaskuntza, 2006ko abenduan Euskararen Erakunde Publikoko Administrazio kontseiluak onartu zuen hizkuntza politika proiektuaren muinean da eta, beste erronka batzuk bezala (hedabideak, lehen haurtzaroa, hizkuntzaren gizarte-erabilera, sentsibilizazioa...), estrategikoa da, gaur egun belaunaldi gazteek eskolan baitute nagusiki euskara ikasten. Euskararen eta euskarazko irakaskuntzaren izaera estrategikoa ondoko 2 puntuetan oinarritzen da :

- alde batetik, Hezkuntza ministerioaren parte hartze ofiziala EEPko Biltzar Nagusian eta finantzamenduan ;
- bestaldekik, 2004ko azaroaren 26an izenpetu zen eta 2010eko abenduan arraberritu zen Hezkuntza Nazionala eta Kontseilu Nagusiaren arteko hitzarmena.

Hitzarmen honek Euskararen Erakunde Publikoari bi misio ematen dizkio :

- 1/ Etengabeko kontzertazio dispositiboa antolatzea
  - ↳ Euskararen eta euskarazko irakaskuntza kualitatiboki eta kuantitatiboki garatzeko eta egituratzeko helburuarekin
  - ↳ Partaide ezberdinek garatu beharreko politikei buruz
    - Estatuari dagozkion eskumenetan : postuak, irakasleen formakuntza, klase irekitzeak...
    - tokiko elkargoei dagozkien eskumenetan : egoitzak, eskoletako langileak,...
    - bien gain diren eskumenetan : tresna pedagogikoak, familien sentsibilizazioa, eskaeraren neurketa, izen-emate prozedurak...
- 2/ Irakaskuntzan finkatu norabideen eta Hizkuntza Politikako beste gaien arteko koherentzia eta osagarritasuna segurtatzea.

## Présentation du projet :

Pour remplir sa mission, l'OPLB a défini successivement deux documents d'orientation de la politique à mener dans le domaine de l'enseignement en langue basque, adoptés par le Conseil d'Administration en présence du Recteur de l'Académie de Bordeaux :

- le Volet 1 de la programmation pluriannuelle de l'offre d'enseignement du basque et en basque, adopté par le CA de l'OPLB le 20 décembre 2005, visant le développement et la structuration territoriale de l'offre d'enseignement en langue basque et qui s'inscrit pour la première fois dans une logique de politique volontariste de développement de l'offre, dans le respect de trois principes directeurs :
  - o assurer une couverture territoriale cohérente ;
  - o garantir une continuité d'enseignement entre les différents niveaux scolaires ;
  - o veiller à la libre adhésion des familles.
- le Volet 2 de la programmation pluriannuelle de l'offre d'enseignement du basque et en basque, adopté par le CA de l'OPLB le 30 janvier 2008, visant la structuration qualitative des enseignements en langue basque.

Après sept années de mise en œuvre du Volet 1 et six années de mise en œuvre du Volet 2, le document joint au présent rapport, sur la base d'un bilan des avancées réalisées et des orientations dont la mise en œuvre reste partielle, établit des propositions visant la poursuite et la progression dans la mise en œuvre des orientations actées dans les volets 1 et 2.

## Délibération :

Compte tenu de ces éléments, l'Assemblée générale de l'OPLB décide d'approuver les propositions relatives à la mise en œuvre des volets 1 et 2 de la programmation pluriannuelle de l'offre d'enseignement du basque et en basque, détaillées dans le document joint en annexe.

## Adopté à l'unanimité.

## Proiektuaren aurkezpena :

Bere misioa betetzeko, EEPk euskarazko irakaskuntza arloan eraman behar zen politikari buruzko bi orientabide dokumentu definitu zituen, EEPko Administrazio Kontseiluak Bordeleko Akademia Errektorearen presentzian onartuak :

- Euskararen eta euskarazko irakaskuntza eskaintzaren urte anitzeko programazioaren 1. atala, EEPko AKk 2005eko abenduaren 20an onartua. Euskarazko irakaskuntza eskaintzaren garatzeko eta egituratzeko xedea du eta lehen aldiko eskaintza garatzeko politika boluntarista batean kokatzen da, 3 printzipio nagusi errespetatuz :
  - o lurralde estaltzearen koherentzia segurtatzea
  - o Eskola mailen arteko jarraipena segurtatzea
  - o Familien hautu askea zaintzea
- Euskararen eta euskarazko irakaskuntza eskaintzaren urte anitzeko programazioaren 2. atala, EEPko AKk 2008ko urtarrilaren 30ean onartua eta euskarazko irakaskuntza kualitatiboki garatzeko xedea duena.

7 urtez 1. atala eta 6 urtez 2. atala obratu ondoren, txosten honi lotua zaion eranskinak 1. eta 2. atalean adostuak diren neurriak obratzen segitzeko eta aitzinarazteko proposamenak egiten ditu, jadanik gauzatu diren eta oraindik partzialki obratuak diren orientabideen bilana kontuan hartuz.

## Erabakia :

Lehenago aurkeztu elementuak kontuan harturik, EEPren Biltzar Nagusiak erabakitzen du euskararen eta euskarazko irakaskuntza eskaintzaren urte anitzeko programazioaren 1. eta 2. atalen obratzeari buruzko proposamenak adostea (ikus eranskina).

## Aho batez onartua.